



EBAZPENA, 2016ko uztailaren 26koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Langileak Kudeatzeko zuzendariarena; Honen bidez, hautaketa-prozeduretan lehiaketa-aldian izangaiek lortutako puntuazio totalak argitara ematen dira (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko otsailaren 5eko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduretan)

2016ko otsailaren 5eko Aginduaren (EHAA, 2016ko otsailaren 9koa) bidez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, dei egin ziren Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozedurak, baita aipatutako kidegoko funtzionarioek espezialitate berriak eskuratzeko ere.

Aipatutako Aginduaren 8.7 oinarriak zehazten duenarekin eta 2016ko ekainaren 6ko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren Ebazpenak adierazten duenarekin bat etorriz, zuzendari beraren Ebazpenaren bidez argitara eman ziren lehiaketa-aldian izangaiek lortutako behin betiko puntuazioak, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzaren Unitateek baloratutako meritua barematu ostean. Beste aldetik, Batzorde Barematzaileek argitara eman zituzten haiei barematzea dagozkien meritua.

Horrenbestez,

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Argitaratzea Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozeduretan izangaiek lortutako puntuazio totalak (Hautaketa-prozedurak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta kultura sailburuaren 2016ko otsailaren 5eko Aginduaren bidez deitu ziren).

Bigarrena.- Lehiaketa-aldiko puntuazio totalen zerrenda ondorengo lekuan emango da argitara:

<http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz) -> "EPE 2016. Sartzeko eta iristeko hautaketa-prozedura" -> "Hautaketa prozesuaren jarraipena" -> kidegoa eta espezialitatea adierazi -> "Emaitzak" -> "Lehiaketa aldia - Guztira".

Hirugarrena.- Puntuazio totalaren aurka ez dago errekurtsoa jartzerik; interesa duten izangaiek gorako errekurtsoa jarri ahal izango dute izangai hautatuen behin betiko zerrendaren aurka (deialdiaren 10.3.2 oinarrian aurreikusitakoa).

Vitoria-Gasteizen, 2016ko uztailaren 26an.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,

KONRADO MUGERTZA URKIDI